PROGRAMAREN DATU OROKORRAK

Departamentua: 10 - KULTURA, LANKIDETZA, GAZTERIA ETA KIROL DEPARTAMENTUA
Atala: 1030 - Kultur Sustapena eta Gazteriako Zuzendaritza Nagusia
Programa: 300 - Haur, nerabe eta gazteen sustapena
Funtzionala: 232 - Gizarte sustapena

Programa mota:

Finalista

Misioa:

Haurrek, nerabeek eta gazteek ezaugarri eta behar espezifikoak dituzte, faktore psikosozialek, fisikoek eta nortasun-faktoreek markatuta, eta, horien artean, generoak funtsezko zeregina du. Bizi-etapa hori funtsezkoa da nortasuna eratzeko, ezagutzak eskuratzeko, segurtasun pertsonala eraikitzeko eta etorkizuneko proiekziorako. Prozesu horiek guztiek genero-rolen, -estereotipoen eta -itxaropenen eragin handia dute.

Hori dela eta, Haurrak eta Gazteak Sustatzeko Foru Zerbitzuaren egitekoa da hezkuntza ez-formalaren eremuan gizarte- eta ingurumen-baldintzak sustatzea, garapen osoa, segurua, berdintasunezkoa eta generoagatiko diskriminaziorik gabea bermatzeko. Horrek esan nahi du errespetuan, ekitatean eta aniztasunean oinarritutako harremanak sustatu behar direla, genero-estereotipoak deseraiki behar direla eta pertsona bakoitza ahaldundu behar dela, bere identitatea eta potentzialа bere sexuari lotutako gizarte-aginduetatik haratago azter dezan.

Egoeraren diagnostikoa:

Nahiz eta eskuragarri dauden azterlanek erakusten duten gazteek, oro har, beren bizitzarekiko gogobetetasun-maila handiei eusten dietela, etxebizitza eskuratzeko zailtasunekin, emantzipazio-prozesuekin eta lan-ibilbide egonkorrak sendotzearekin lotutako kezka-faktore garrantzitsuek bere horretan jarraitzen dute. Horri etorkizun ekonomiko, sozial eta ingurumenekoarekiko ziurgabetasun gero eta handiagoa gehitzen zaio, eta horrek baldintzatu egiten ditu gazte askoren bizi-itxaropenak eta proiektu pertsonalak. Egoera horrek emantzipazio-prozesuak eta familia-proiektuak atzeratzen laguntzen du, gainera zahartze demografikoak eta jaiotza-tasa baxuak markatutako testuinguru batean. Zailtasun horien ondorioek, gainera, ez diete berdin eragiten emakumeei eta gizonei. Emakume gazteek, batez beste, prestakuntza-maila handiagoak izan arren, lan-prekarietatea pairatzeko arrisku handiagoa dute, ordainsari txikiagoak jasotzen dituzte eta zaintza-erantzukizun gehiago hartzen dituzte beren gain; horiek guztiek eragina dute autonomia pertsonal eta ekonomikorako egiten dituzten ibilbideetan.

Haurtzaroari eta nerabezaroari dagokienez, datu eta azterlan berrienek agerian uzten dute erronka esanguratsuak daudela ongizate emozionalarekin, bizikidetzarekin, aukera-berdintasunarekin eta hazkunde-inguruneen kalitatearekin lotuta. Sozializazio-prozesuetan ingurune digitalen presentzia gero eta handiagoak ikaskuntzarako eta parte-hartzerako aukera berriak sortzen dituen arren, arrisku-egoeren aurrean esposizio handiagoa ere eragiten du; besteak beste, indarkeria mota desberdinen, diskriminazioaren edo teknologien erabilera problematikoaren aurrean. Era berean, baliabideak, laguntzak eta parte-hartze esperientziak eskuratzeko orduan desberdintasunak antzematen dira, eta horiek eragin ezberdina dute haur eta nerabeengan generoaren, jatorriaren, egoera sozioekonomikoaren edo aniztasun funtzionalaren arabera.

Bestalde, gero eta argiago geratzen da familia-, hezkuntza-, komunitate-, kirol-, kultura- eta aisialdi-inguruneek sozializazio- eta babes-gune gisa duten garrantzia. Eskura dagoen ebidentziak erakusten du ingurune horien kalitateak, tratu onean oinarritutako harremanen existentziak, erreferentziazko helduen presentziak eta komunitate-bizitzan parte hartzeko aukerek lotura estua dutela haurren eta nerabeen ongizatearekin, gaitasunen garapenarekin eta kalteberatasun-egoeren prebentzioarekin. Ondorioz, Gipuzkoan identifikatutako erronka nagusietako bat da haur eta nerabeen eskubideen benetako erabilera ahalbidetuko duten ingurune seguruak, inklusiboak eta babesleak bermatzea, aldi berean komunitatearen baitan eragile aktibo gisa duten zeregina indartuz.

Beharraren deskribapen xehatua:

Gipuzkoako haur, nerabe eta gazteen sustapenak administrazio publikoen jardun koordinatua eskatzen du, haur, nerabe eta gazte guztien ongizatea, garapen integrala eta eskubideen egikaritze eraginkorra ahalbidetuko dituzten ingurune seguruak, inklusiboak, babesleak eta parte-hartzaileak bermatzeko.

Premia hori bereziki garrantzitsua da gaur egungo testuinguruan, non nerabezarorako trantsizioan ongizatearen narriadura, estres-, bakardade- eta ondoez emozionaleko egoeren gorakada, ingurune digitalen eragin gero eta handiagoa, desberdintasun sozioekonomiko eta genero-desberdintasunak, eta gazteen emantzipazio- eta autonomia-prozesuak baldintzatzen dituzten zailtasunak agerian geratzen diren.

Premia horiei erantzuteko, beharrezkoa da familia-, komunitate-, hezkuntza-, kultura- eta aisialdi-inguruneetan dauden babes-faktoreak indartzea, tratu ona, bizikidetza, parte-hartzea eta aukera-berdintasuna sustatuz. Era berean, beharrezkoa da politika, programa eta zerbitzu guztietan genero-ikuspegia, inklusioa eta ekitatea modu zeharkakoan txertatzea, arreta berezia eskainiz neska, nerabe eta emakume gazteei eragiten dieten desberdintasunei, baita zaurgarritasun-egoera handiagoan dauden beste kolektibo batzuei ere.

Lurralde-mailan, eta Gipuzkoako udalekin lankidetzan, premia horiei erantzuten zaie Gaztematika Sarearen baitako hurbileko zerbitzu sozioedukatiboak sortu, sendotu eta hobetuz, bereziki haurtxokoak, ludotekak eta gaztelekuak, parte-hartzerako, babeserako, indarkeriaren prebentziorako eta komunitate-garapenerako gune gisa duten eginkizuna indartuz. Halaber, Ingurune On estrategiaren bidez ingurune seguruak sustatzeko, haur eta nerabeen entzutea eta parte-hartzea bermatzeko, hezkuntza ez-formala indartzeko eta familiei beren heziketa-eginkizunean laguntzeko ekimenak garatzen dira.

Osagarri gisa, Gipuzkoako Foru Aldundiak aisialdi hezitzaileko, bizikidetzako eta autonomia pertsonaleko programak sustatzen ditu, hala nola Gazte Aterpetxeen Foru Sarea, Udalekuak eta Gazte Oporraldiak; nerabeei, gazteei, familiei eta profesionalei zuzendutako prestakuntza-programak (Treba); parte-hartzea eta herritartasun aktiboa bultzatzeko ekimenak; gazte-informazioko zerbitzuak; haur eta gazteen ekimenak sustatzeko politikak; nazioarteko mugikortasun eta truke-programak; eta gazteen emantzipazioa eta garapen pertsonala bultzatzera bideratutako jarduketak. Horien guztien helburua da Gipuzkoako haur, nerabe eta gazteen ongizatea, aukera-berdintasuna, parte-hartze aktiboa eta bizi-proiektu autonomo eta asegarriak garatzeko gaitasuna sustatzea.

Nori zuzendua:

Gipuzkoako haurrak, nerabeak eta gazteak, udalak, gazte elkarteak eta aisialdi eskolak, familiak, kultur taldeak, ikastetxeak, unibertsitatea eta herritarrak orokorrean.

Programaren estrategia.

1. Baliabideak (inputak):

Giza baliabideak
Baliabide materialak eta ekonomikoak.
Laguntza teknikoak
Azpiegiturak (aterpetxeen sarea, Gaztegunea).
Tresna digitalak.

2. Garatu beharreko jarduerak/prozesuak:

Haur, nerabe eta gazteen beharrak balioestea, jardun eremuak lehenestea, helburuak ezartzea, hautemandako beharrei erantzuteko estrategiak planifikatzea, estrategiak garatzea zerbitzuak eskainiz eta horiek balioetsiz ezarritako helburuen arabera.

3. Ondasun eta Zerbitzuak (outputak):

Gazte ekipamenduen eskaintza/haur, nerabe eta gazteen zuzeneko zerbitzuen eskaintza. Lurraldeko beste eragile batzuei laguntzea haur, nerabe eta gazteen sustapeneko politiken alde jardun dezaten.

Programaren arau esparrua:

8/2021 Lege Organikoa, ekainaren 4koa, haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean osorik babestekoa.
2/2022 Legea, martxoaren 10ekoa, Gazteriarena
2/2024 Legea, otsailaren 15ekoa, haur eta nerabeena
112/2026 DEKRETUA, ekainaren 30ekoa, aisia hezigarriko eta astialdiko jarduerei buruzkoa.
12/2019 Foru Dekretua, apirilaren 16koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Haurrak eta Gazteak Sustatzeko Erakunde arteko Sarea sortzen duena. Gaztematika Sarea
30-014/2022 Foru Agindua, apirilaren 27koa, Gipuzkoako Foru Aldundiaren aterpetxeen sarea erabiltzeko araudia onartzen duena.

- 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena.
- 2/2015 Foru Araua, martxoaren 9koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako.
- 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako.

2024-2027 KUDEAKETA PLAN ESTRATEGIKOARI LOTUTAKO DEPARTAMENTU JARDUKETA

Urteko helburua: Gazteei aukerak eskaintzen dizkien lurraldea.

Adierazlea	Neurri-unitatea	Helburu mota	Azken balioa	Aurtengo aurreikuspena	Urteko helburua	Agintaldiko helburua
Udalekuak programaren erabiltzaile direnen asebetetzea (gurasoak)	Eskala 1-10	>=	8,70	8,50	8,50	8,50
Udalekuak programaren erabiltzaile direnen asebetetzea (gurasoak)	Eskala 1-10	>=	8,70	8,50	8,50	8,50
Gipuzkoan gazteen sustapenerako gastua	Kopurua	>=	21.873.734,00	21.873.734,00	30.500.000,00	30.500.000,00
Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatutako gazteentzako ongizate emozionaleko programetan parte hartzen duten udal kopurua	Kopurua	>=	39,00	39,00	62,00	62,00

Helburuari lotutako ekintza lerroak eta ekintzak

1. Ekintza lerroa:

Gazteek politika publikoen definizioan, ezarpenean eta ebaluazioan duten parte hartzea indartzea, gazteen artean kultura demokratikoa sustatzeko proiektu parte hartzaileak sustatuz, hezkuntza munduarekin eta beste eragileekin lankidetzan, hala nola lehen eta bigarren mailako hezkuntzarekin eta unibertsitatearekin.

8 LAN DUINA ETA HAZKUNDE EKONOMIKOA % 10,00 — 11 HIRI ETA KOMUNITATE JASANGARRIAK % 80,00 — 17 HELBURUAK LORTZEKO ALIANTZA % 10,00

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Ekintza lerroa, guztira	**112.539,24**	**26.000,00**		**2027/01/01**	**2029/12/31**	
1.1 Ekintza Proiektu pilotua: Gazteen Zerbitzu baten definizioa lantzeko lanerako prozesua	112.539,24	26.000,00		2027/01/01	2029/12/31	✔

2. Ekintza lerroa:

Etapa ezberdinetan orientazioko, ikaskuntzarako eta bidelaguntzarako tresnak garatzea.

4 KALITATEZKO HEZKUNTZA % 5,81 — 5 GENERO BERDINTASUNA % 9,62 — 10 DESBERDINTASUNAK MURRIZTEA % 2,88 — 11 HIRI ETA KOMUNITATE JASANGARRIAK % 79,22

17 HELBURUAK LORTZEKO ALIANTZA % 2,48

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Ekintza lerroa, guztira	**2.750.224,16**			**2027/01/01**	**2027/12/31**	
2.1 Ekintza Gipuzkoako Haurrak, Nerabeak eta Gazteak Sustatzeko Erakundeen arteko Sarea (Gaztematika) kudeatzea eta bultzatzea.	140.583,97			2027/01/01	2027/12/31	
2.2 Ekintza Trreba Nerabeak (12-16)	167.307,08			2027/01/01	2027/12/31	
2.3 Ekintza Erasmus +: Gipuzkoako Gazteak Ekinean	48.291,62			2027/01/01	2027/12/31	
2.4 Ekintza Aisialdi Eskolak baliosteko lanak	19.582,64			2027/01/01	2027/12/31	
2.5 Ekintza Udalekuak (7 eta 13 urte bitarteko haurrentzat)	675.377,75			2027/01/01	2027/12/31	
2.6 Ekintza Gazte oporraldiak (14 eta 17 urte bitarteko gazteentzako udalekuen eskaintza)	273.117,00			2027/01/01	2027/12/31	
2.7 Ekintza Udabizi web bilatzailea: Gipuzkoako haur eta gazte aisialdiaren eskaintza udan	32.746,38			2027/01/01	2027/12/31	
2.8 Ekintza Aisialdi Eskolei diru-laguntzak: urteko programa garatzeko eta egitura mantentzeko.	86.051,83			2027/01/01	2027/12/31	
2.9 Ekintza Udalekuak eta kanpaldiak antolatzeko dirulaguntzak	100.750,73			2027/01/01	2027/12/31	
2.10 Ekintza Haur eta gazteen alorrean jarduten duten udalerriz gaindiko elkarte erakundeen antolaketa egitura mantentzeko dirulaguntzak.	44.650,73			2027/01/01	2027/12/31	
2.11 Ekintza Zmz? Haur eta nerabeen ahotsa Aldundiko eta Lurraldeko zeharkakotasuna eraikitzeko oinarri	29.861,58			2027/01/01	2027/12/31	
2.12 Ekintza Treba Profesionalak: Udaletako teknikeri eta hezitzaileentzako prestakuntza plana	99.319,55			2027/01/01	2027/12/31	

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
2.13 Ekintza Udalak haur, nerabe eta gazteentzako planak eta proiektuak garatzeko diru-laguntzak	380.285,97			2027/01/01	2027/12/31	
2.14 Ekintza Ingurune On Ituna: Gipuzkoa haur eta nerabeentzako lurralde seguru, babesle eta tratu onekoa izan dadin estrategia garatu	213.174,81			2027/01/01	2027/12/31	
2.15 Ekintza Ingurune On estrategian ikuspuntu feminista bermatzeko berariazko lanketa egin: haurren kontrako sexu indarkeriaren lanketaren jarraipena	128.108,12			2027/01/01	2027/12/31	
2.16 Ekintza Treba Gazteak (17-24)	69.507,20			2027/01/01	2027/12/31	
2.17 Ekintza Ingurune On Estrategiarekin lotuta Lurraldeko haurren esta nerabeen zerbitzuak hobetzeko sustapena	241.507,20			2027/01/01	2027/12/31	

3. Ekintza lerroa:

Gazteentzat lurraldearen etorkizuneko erronka sozioekonomikoei erantzungo dieten kalitatezko enpleguak garatuko dituzten aukerak sortzea, eta enplegagarritasun-, moldagarritasun- eta erresilientzia-estrategiak bultzatzea, gazteei gizarte- eta lan-eremuan erabat garatzeko aukera emango dietena, sektoreka ematen diren emakumeen eta gizonen arteko desorekak aztertuz, berdintasuna sustatze aldera.

8 LAN DUINA ETA HAZKUNDE EKONOMIKOA % 30,00

11 HIRI ETA KOMUNITATE JASANGARRIAK % 50,00

16 BAKEA, JUSTIZIA ETA INSTITUZIO SENDOAK % 20,00

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Ekintza lerroa, guztira	**12.198,43**			**2027/01/01**	**2027/12/31**	
3.1 Ekintza Euskadiko Gazteria Estrategia 2030 sustatu dagokien foru departamentuetan	12.198,43			2027/01/01	2027/12/31	

4. Ekintza lerroa:

Ehun sozialean, zibikoan eta komunitarioan sakontzea ahalbidetzen duten espazioak eta kanalak sustatzea. Gizartean erabateko eta bidezko parte-hartzea ahalbidetzeko, gaitasun pertsonalak, profesionalak eta sozialak eskuratuz eta garatuz, bizitza osoan zehar ikasteko sistema oso baten barruan.

4 KALITATEZKO HEZKUNTZA % 97,91

17 HELBURUAK LORTZEKO ALIANTZA % 2,09

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Ekintza lerroa, guztira	**561.967,68**	**5.000,00**		**2027/01/01**	**2028/12/31**	
4.1 Ekintza Euskadiko Gazte Kontseiluarekin (EGK) lankidetza hitzarmena eta diru-laguntza.	47.285,97			2027/01/01	2027/12/31	
4.2 Ekintza Auzolan: Gazteen auzolanak sustatzeko diru laguntzak	303.928,76	5.000,00		2027/01/01	2028/12/31	
4.3 Ekintza Gazte elkarteentzako baliabide zerbitzua (Elkartegintza)	117.411,62			2027/01/01	2027/12/31	
4.4 Ekintza Haurrentzako, nerabeentzako, gazteentzako eta haiekin zerikusia duten eragileentzako komunikazio, informazio eta dokumentazioa helaraztea.	93.341,33			2027/01/01	2027/12/31	

5. Ekintza lerroa:
Landa inguruneen geroa bermatzeko, proiektuak indartu talentu gaztea erakarriz eta bertako proiektu estrategikoen definizioan eta garapenean inplikatuz, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatuz.



% 30,00



% 35,00



% 35,00

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Ekintza lerroa, guztira	**207.126,58**			**2027/01/01**	**2027/12/31**	
5.1 Ekintza Gure Plaza Txo! Zerbitzua: 1000 biztanle baino gutxigoko herrientzat haur, nerabe eta gazteria sustapen zerbitzua	207.126,58			2027/01/01	2027/12/31	

Urteko helburua: Aniztasuna ardatz hartuta, giza eskubideetan oinarritutako politika publikoak indartzea.

Adierazlea	Neurri-unitatea	Helburu mota	Azken balioa	Aurtengo aurreikuspena	Urteko helburua	Agintaldiko helburua
Emandako laguntzen kopurua.	Kopurua	>=	4,00	2,00	3,00	4,00
Aniztasunaren zeharkakotasuna Gipuzkoako Foru Aldundiaren ekintza	Kopurua	>=	4,00	4,00	4,00	4,00

Adierazlea	Neurri-unitatea	Helburu mota	Azken balioa	Aurtengo aurreikuspena	Urteko helburua	Agintaldiko helburua
giltzarrietan						
Gipuzkoak egindako garapen-lankidetzako proiektuen kopurua	Kopurua	>=	38,00	38,00	38,00	38,00


Helburuari lotutako ekintza lerroak eta ekintzak

1. Ekintza lerroa:

Pertsonen integrazioa, diskriminaziorik eza eta bizikidetza sustatzen jarraitzea, edozein dela ere jatorria, hizkuntza, kultura, sexu orientazioa, erlijioa, ideologia eta gaitasun funtzionala, betiere, eta edozein taldetan emakumeen eta gizonen genero rol eta posizio desberdinak kontuan hartuz.



% 27,85



% 52,06



% 16,49



% 3,60

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Ekintza lerroa, guztira	**85.829,62**			**2027/01/01**	**2027/12/31**	
1.1 Ekintza Gipuzkoako kirol egokituko federazioaren udalekuak.	34.150,73			2027/01/01	2027/12/31	
1.2 Ekintza Aniztasunaren eremuko elkarteentzako laguntzak.	14.150,73			2027/01/01	2027/12/31	
1.3 Ekintza Gipuzkoako Gurutze Gorria	22.075,36			2027/01/01	2027/12/31	
1.4 Ekintza AGIFES (Asociación guipuzcoana de familiares y personas con problemas de salud mental)	10.830,15			2027/01/01	2027/12/31	
1.5 Ekintza Gautena	4.622,65			2027/01/01	2027/12/31	

Urteko helburua: Behar artistiko eta kulturalei erantzutea, egungo ekosistema indartzeko eta ekosistema kultural berriak sortzeko ahaleginari eutsiz eta euskal kultura sustatuz.

Adierazlea	Neurri-unitatea	Helburu mota	Azken balioa	Aurtengo aurreikuspena	Urteko helburua	Agintaldiko helburua
Arlo artistiko eta kulturalaren ekosistema indartzeko mahai sektorial kopurua	Kopurua	>=	4,00	4,00	5,00	5,00

Helburuari lotutako ekintza lerroak eta ekintzak

1. Ekintza lerroa:
Belaunaldi gazteenekin eta sortzen ari diren dinamikekin bat egiten duten kultura adierazpen garaikideenak eta abangoardiakoak bultzatzea.



% 1,53



% 98,47

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Ekintza lerroa, guztira	**195.680,04**			**2027/01/01**	**2027/12/31**	
1.1 Ekintza Gipuzkoako Gazte Tour: programa de cultura joven.	185.690,15			2027/01/01	2027/07/01	
1.2 Ekintza ATLANTIKALDIA	9.989,89			2027/01/01	2027/12/31	

Urteko helburua: Foru Aldundiaren jarduera izatea euskaratik eta euskaraz

Adierazlea	Neurri-unitatea	Helburu mota	Azken balioa	Aurtengo aurreikuspena	Urteko helburua	Agintaldiko helburua
Erakundeak plan estrategiko eta kudeaketa-planak kudeatzeko sistema egituratua osatu du (%)	Ehunekoa	>=	0,00	0,00	80,00	80,00
Euskarazko administrazio-atalak	Kopurua	>=	0,00	0,00	50,00	50,00

Helburuari lotutako ekintza lerroak eta ekintzak

1. Ekintza lerroa:
Gipuzkoako Foru Aldundiaren Euskararen Erabilera Plana (2023-2027) gauzatu



% 100,00

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Ekintza lerroa, guztira	**467,63**			**2027/01/01**	**2027/12/31**	
1.1 Ekintza Kontratuak egiterakoan hizkuntza berdintasuna lortzeko klausulen gida aplikatzea, kontratazio publikoa modu elektronikoan kudeatzeko aplikazio berriaren baitan.	467,63			2027/01/01	2027/12/31	

DEPARTAMENTUAREN JARDUKETA OPERATIBOA

Urteko helburua: Haurren, nerabeen eta gazteen ahalduntzea, autonomia eta emantzipazioa sustatu eta laguntzea, portaeraren alderdi sozioemozionaletan arreta berezia jarrita.

Adierazlea	Neurri-unitatea	Helburu mota	Azken balioa	Aurtengo aurreikuspena	Urteko helburua	Agintaldiko helburua
Gazteen sustapen arloan dirulaguntzak jaso dituzten gazte elkarteak (kopurua)	Kopurua	>=	66,00	67,00	69,00	72,00
Auzolanean antolatutako gazteen proiektu diruz lagunduen kopurua handitzea.	Kopurua	>=	7,00	2,00	4,00	4,00

Helburuari lotutako ekintza lerroak eta ekintzak

1. Ekintza lerroa:

Gaztematika bultzatzea, Haurrak eta Gazteak Sustatzeko Gipuzkoako Lurralde Historikoko Erakundearteko Sarea, toki erakundeen politika publikoen arteko solaskidetza eta bateratze tresna gisa.



% 16,01



% 62,43



% 15,55



% 6,01

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Ekintza lerroa, guztira	**508.554,11**			**2027/01/01**	**2027/12/31**	
1.1 Ekintza Gipuzkoako udalei aholku programa eskaini haur, nerabe.eta gazteen sustapen politiken inguruan.	101.889,94			2027/01/01	2027/12/31	
1.2 Ekintza GazteSare Lurraldeko datu base propioa, kdueatu, ustiatu eta garatu.	53.563,29			2027/01/01	2027/12/31	
1.3 Ekintza Haur eta Gazte Zerbitzuen enpresa kudeatzaile eta Aisialdi eskolekin harremana eta koordinazioa.	10.101,31			2027/01/01	2027/12/31	
1.4 Ekintza Haurren Eskubideen Nazioarteko eguna ospatzea (Azaroak 20)	68.367,59			2027/01/01	2027/11/30	
1.5 Ekintza Astialdiko ekintzen erantzunkizunpeko aitorpenak kudeatu eta ikuskaritza funtzioak egin	274.631,98			2027/01/01	2027/12/31	

Urteko helburua: Foru-aterpetxeen sarea eraginkortasunez eta efizientziaz kudeatzea, gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-irizpideen arabera.

Adierazlea	Neurri-unitatea	Helburu mota	Azken balioa	Aurtengo aurreikuspena	Urteko helburua	Agintaldiko helburua
Foru aterpetxeen zerbitzuen prezio publikoa ordaintzeagatik urtean lortutako sarrerak	Euroak	>=	1.040.590,00	1.000.000,00	1.100.000,00	1.150.000,00
Gazte aterpeetan egindako gau kopurua	Kopurua	>=	55.489,00	48.500,00	50.000,00	51.000,00
Erabiltzaileen asebetetzea gazte ekipamenduak erabiltzeko esperientziari dagokionez	Eskala 1-10	>=	8,58	8,80	8,80	8,80

Helburuari lotutako ekintza lerroak eta ekintzak

1. Ekintza lerroa:
Aterpetxe atalaren giza baliabideen kudeaketa



% 100,00

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Ekintza lerroa, guztira	**2.916.747,41**			**2027/01/01**	**2027/12/31**	
1.1 Ekintza Gazte aterpetxeen erabiltzaileei erreserba zerbitzua eskaini.	67.357,91			2027/01/01	2027/12/31	
1.2 Ekintza Gazte aterpetxeen erabiltzaileei otordu zerbitzua eskaini.	1.185.484,00			2027/01/01	2027/12/31	
1.3 Ekintza Gazte aterpetxeen erabiltzaileei ostatu zerbitzua eskaini.	1.663.905,50			2027/01/01	2027/12/31	

2. Ekintza lerroa:
Gazte ekipamenduen kudeaketa sozial eta ekonomiko eraginkorra eta efikaza egitea



% 18,05



% 2,49



% 3,64



% 9,62



% 47,14



% 19,06

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Ekintza lerroa, guztira	**977.056,55**	**494.000,00**		**2027/01/01**	**2029/12/31**	
2.1 Ekintza Baliabide eta zerbitzuen erosketaren kudeaketa.	574.387,16			2027/01/01	2027/12/31	
2.2 Ekintza Ekipamenduak zaintzen eta hobetzen jardutea, inbertsioak eginez	183.143,88			2027/01/01	2027/12/31	
2.3 Ekintza Foru aterpetxeen Sarea ezagutaraztea erabiltzaile potentzialaren artean.	4.060,20	234.000,00		2027/01/01	2029/12/31	
2.4 Ekintza Jasangarritasun energetikoa hobetzeko ekintzak pixkanaka egitea.	53.572,14			2027/01/01	2027/12/31	
2.5 Ekintza Programaren eragin linguistiko handiko kontratuetan edota dirulaguntzetan hizkuntza-klausula berrituak txertatu.	20.385,97	260.000,00		2027/01/01	2029/12/31	
2.6 Ekintza Zaruzko Aterpetxearen fatxada berritu eraikinaren jasangarritasun energetikoa hobetuz	141.507,20			2027/01/01	2027/12/31	

3. Ekintza lerroa:
Ikuskaritzak eta interes taldeak



% 80,00



% 20,00

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Ekintza lerroa, guztira	**39.668,60**	**2.080.000,00**		**2027/01/01**	**2029/12/31**	
3.1 Ekintza Gipuzkoako gazte-aterpetxeen aldizkako ikuskapena.	25.875,09			2027/01/01	2027/12/31	
3.2 Ekintza Tokiko eragileekin elkarlanean, aterpetxe bakoitzean aisialdiko jarduera osagarrien eskaintza sortzea eta eskaintzea.	13.793,51	2.080.000,00		2027/01/01	2029/12/31	

GENERO BERDINTASUNA

Programaren genero garrantzia: Handia

Beharraren deskribapen xehatua:

Haurtzaroa, nerabezaroa eta gaztaroa berezko ezaugarriak dituzten bizi-etapak dira, baita ikuspegi feministatik ere.

Haurtzaroan sozializazio bitarra gertatzen da, sexua-generoa-sexualitatea etengabean oinarrituta. Sozializazio-prozesu hori, lehenik eta behin, familian gertatzen da, eta, ondoren, indartu egiten da gizarte- eta hezkuntza-eremuetan.

Nerabezaroan, areagotu egiten dira haurrek haurtzaroan barneratu dituzten portaeren arteko desberdintasunak. Bereizketa horren oinarria botere-harreman sexistak dira, eta nerabeen ongizatean eragiten du. Neskek eta nerabeek presio estetiko handiagoa sentitzen dute, eta beren gorputzak eta sexualitatea kontrolatzeko mekanismo handiagoak izaten dituzte. Errealitate hori guztia haurrek eta nerabeek indarkeria sexista bizitzen hastean ikusten da.

Gaztaroan, aurreko guztiari lanaren sexu-banaketa gehitu behar zaio. Horregatik, emakume gazteek zailtasun gehiago izango dituzte emantzipazio-prozesuan, eta, gainera, zaintza-lanetan lan-karga handiagoa izango dute.

Horregatik guztiagatik, Haurrak, Nerabeak eta Gazteak Sustatzeko Zerbitzuak errealitate horiek kontuan hartzen ditu bere ekintzak hedatzerakoan, bai haurrekin, nerabeekin eta gazteekin zuzenean esku hartzeko edukiak eraikitzean, bai eremuko profesionalekin lotutako ekintzetan, bai ahaidetasun positiboak sustatzean.

Berdintasun-agindu nagusiak:

Zeharkako aginduak ez dira txertatzen, Foru Aldundi osoarentzat komunak direlako.
Emakumeen eta gizonen berdintasuna eta indarkeria matxista desagerraraztea administrazio publikoen printzipio orokor gisa jasoko dira haurren, nerabeen eta gazteen sustapenaren esparruan.

Euskal Gazte Estrategiaren esku-hartze ildoen artean sartuko dira emakumeen eta gizonen berdintasuna, sexu- eta genero-aniztasuna eta sexu-hezkuntza integrala.

Haurren aurkako indarkeriarekin lotutako edozein neurritan genero-ikuspegia txertatuko da.

Haurtzaroaren eta nerabezaroaren esparruarekin lotutako profesionalei zuzendutako prestakuntza-planetan genero-ikuspegia eta ikuspegi intersekzionala txertatuko dira, bereziki desgaitasuna, jatorri etnikoa edo arraziala eta LGTBI kolektiboaren errealitatea kontuan hartuta.

Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren tipologien artean berariaz jasoko da nesken aurka gauzatzen den indarkeria, eta administrazio publikoek indarkeria horri buruzko datuak biltzeko eta ikerketa sustatzeko betebeharra izango dute.

Gazteriaren arloan eskumena duen foru-departamentuak sustatuko du edertasun-eredu heteropatriarkalen eta harreman afektiboen ereduen berrikuspen kritikoa, egitura eta sinbolo matxistak legitimatzen dituzten neurrian.

Berdintasun-helburuak

Helburuak:

Ekintza lerroak:

- EL.1.4.4: Gazteentzat lurraldearen etorkizuneko erronka sozioekonomikoei erantzungo dieten kalitatezko enpleguak garatuko dituzten aukerak sortzea, eta enplegagarritasun-, moldagarritasun- eta erresilientzia-estrategiak bultzatzea, gazteei gizarte- eta lan-eremuan erabat garatzeko aukera emango dietena, sektoreka ematen diren emakumeen eta gizonen arteko desorekak aztertuz,

berdintasuna sustatze aldera.

- EL.2.2.2: Pertsonen integrazioa, diskriminaziorik eza eta bizikidetza sustatzen jarraitzea, edozein dela ere jatorria, hizkuntza, kultura, sexu orientazioa, erlijioa, ideologia eta gaitasun funtzionala, betiere, eta edozein taldetan emakumeen eta gizonen genero rol eta posizio desberdinak kontuan hartuz.
- EL.1.4.6: Landa inguruneen geroa bermatzeko, proiektuak indartu talentu gaztea erakarriz eta bertako proiektu estrategikoen definizioan eta garapenean inplikatuz, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatuz.

Berdintasuna sustatzeko programaren ekintzak

Ekintza	Aurrekontua	Programa %
Ingurune On Ituna: Gipuzkoa haur eta nerabeentzako lurralde seguru, babesle eta tratu onekoa izan dadin estrategia garatu	213.174,81	2,55
Ingurune On estrategian ikuspuntu feminista bermatzeko berariazko lanketa egin: haurren kontrako sexu indarkeriaren lanketaren jarraipena	128.108,12	1,53
Guztira	**341.282,93**	**% 4,08**

Programaren gainerako ekintzetan, genero-ikuspegia kontuan hartzen da, honako jarduera hauen bidez:

- Sexua zeharkako aldagai gisa eta/edo genero-adierazle gisa
- Genero-ikuspegia barne hartzen duten azterlanak eta ikerketak
- Prestakuntza berdintasunean
- Berdintasun-irizpideak kontratu, diru-laguntza, laguntza eta/edo hitzarmenetan
- Komunikazio ez-sexistarako erabilera
- Berdintasunerako koordinazioa eta lankidetza
- Emakumeen eta/edo mugimendu feministaren beharretan eta proposamenetan parte hartzea eta horiek txertatzea

Genero-ikuspegiaren integrazio-indizea:	9,50	puntu
Kuantifikazioa:	341.282,93	(% 3,11)
Ordainketa kredituak:	341.282,93	(% 4,08)
Datozen urteetako gastuak:	0,00	(% 0,00)

HIZKUNTZA BERDINTASUNEKO PLANA

